

OIHALAK HAIZE ALDE

Joan Mari IRIGOIEN

Aurten entzun dute. Baina, hori bakarrik, entzun. Eta bakan batzuk gainera. Donostiako Euskal Jaiek direla eta, altzatar peto bati, urte batzuen etenaldiaren ondoren, aipatutako jaiei hasera ematea tokatu zaio.

Altzatar bat Donostian pregoilari. Geure iritziz, gaurkotasun handiko kontrapuntuak izanik eta, herritarrei zuzenean bideratuak izan direnez, zuzen iruditu zaigu, haizeak bere baitan eraman eta gal ez ditezten, Kontxa badiako itsasontzi apain hartatik botatakoak papereratzea.

Entretenigarri eta ohargarri izan dadila Joan Marik esanikoa.

Jaun-andreok:

Aitortzen dizuet gutxitan igo izan naizela txalupa edo untzi batera, eta gerta litekeela, olatuen joan-etorriekin, idazkia irakurri baino lehen mareatuta geratzea. Hala bada, umorez hartzea eskatzen dizuet, umorea ez baita gauza txarra jai batzuei hasiera emateko.

Kultur eta Turismo Ekintzetxetik iritsi zaidan Euskal Jaiei buruzko informazioa irakurri ondoren, hauxe izan da etorri zaidan lehen irudia: orain tunel barrutik orain kanpotik dabilen trenarena. Izan ere, hiru etapatan bana dezakezu loraldiz eta zimelaldiz jositako Jai hauen historia: lehengoa, 1.896tik 1.936ra bitartean; gero, gerrarekin eta, etenaldia, 1.971.urtera arte; ondoren, beste piztaldi bat, 1.985.eraino; jarraian, berriro etenaldia... aurtengo ekitaldira arte. Aurtengoa, beraz, jaioi arnasa eta bizi berria emateko beste saio bat da. Ahalik eta luzeen iraun dezala, ekimen guztiak ere gutxi ohi baitira gure euskal mundua suspertzeko.

Aurtengo edizioaren lema badakizue zein den: "*Herri bitxiak, ohitura berdinak*": izpiritu horrekin, gure aizkolariak Australiakoekin lehia jatorrean jarriko ditugu; gure otxoteak Alpeetako abesbatzekin; gure dantzak Bielorrusiakoekin; gure trikitixa Alpeetako eta Erromako soinuarekin; gure sokatiralariak hango eta hemengo herrikoekin...

Hala ere, esan dezadan, errespetu eta begirune osoz, ez dakidala guztietan egokiena izan ote den jai hauentzako aukeratutako lema -"*Herri bitxiak, ohitura berdinak*"-, bertakoentzat kanpoko izan ohi baita bitxia, ez bertakoa, eta beldur bainaiz hitz horien babesean ez ote zaigun alda-

meneko Herriekiko menpekotasun kulturalaren sitsa nortasunaren zura berriro jaten ari era inkontziente batean. Normaltasuna erreibindikatu beharko baikenuke euskaldunok gero eta gehiago, ez bitxitasuna, nahiz eta normaltasuna erreibindikatzea aski anormala den bestalde, eta ikuspegi honetatik zuzenagoa bailitzateke, beharbada, beste lema hau: *“Ohitura berdineko Herriak”*.

Arrasaten egindako inaugurazioko lehen edizio hartatik 100 urte joan diren honetan, zer hobeto orduan bizi izandako beste idazle baten eskutik aldarri egitea baino? Eta nor hobeto horretarako, altzatarra naizen aldetik eta Donostiako Kontxari begira nagoen une honetan, Antonio Arzak (1.855/1.904) idazle donostiarra baino, zeinak aitaren aldeko aitona altzatarra baitzuen? Nor hura baino hobeto, bai, berak ere bere garaiko Euskal Jaien pregoia behin baino gehiagotan egin izan zuenez, eta pregoia egiten ez zuenean, beste edozein eratan hartuko baitzuen parte, hala nola Arrasateko edizio hartan bertan, 1.896.ean? Izan ere, antzerkiari buztada izugarria emango zion *Euskaldun-Fedea* izeneko koadro dramatikoaren fundatzailea genuen ordurako Antonio Arzak, eta Arrasaten esan baitzuen talde hark estreinaldia, beste obra batzuen artean Martzelino Soroaren *Alkate Berriya* eta *Abek ishtillubak* antzeztu zuelarik. Eta berak fundatutako Orfeoi Donostiarra ere, mundu osoan berehala ezagun egingo zena, Arrasateko Euskal Jai haietantxe eman baitzuen ezagutzera Antonio Arzakek, 1.896ko uztailaren 7an, honako errepertorio honekin: *Boga boga, Ume eder bat, Xarmangarria* eta *Gernikako arbola*.

Baina nolakoa ote zen Antonio Arzak? Zein ote dira Antonio Arzaken literatur lanen ezaugarriak, bere bizitzarenak ere izan ditezkeenak? Aita Zabalak Antonio Arzaki buruz Auspoan ataratako liburua oinarri harturik, hiru ezaugarriok aipatuko nituzke:

1- Izadiaredido maitasuna. Hainbat et hainbat adibideren artean, zortziko txiki hau esanguratsua izan daiteke: *“Mendiko umea naiz / mendia det maie, / ez nintzade biziko / menditik aparte; / eta gaur kalean, ai!, / bizi banaiz ere, / ez naiz bizi mendira / begiratu gabe”*.

2- Euskal Herri zein euskararekiko maitasuna, *“Itzen bazaigu ama euskera, / euskaldunak illak gera!”* izeneko poema-sorta lekuko. Baina Antonio Arzaken jarrera hobeto ulertzeko kontutan eduki beharko genuke euskaldunok foruak galdu berriak ginela, eta horrek zauri mingarria utzi ziola bihotzean, harik eta egun batean, protesta gisa edo, bere koloretako gorbata kendu eta beltza ipintzen hasi zen arte.

3- Lagun hurkoaganako sentiberatasuna eta errukia, kristau sinesmenetik zetorkiona.

Baina ordutik honako 100 urteko jautzia eginez gero, zer gaurkotasun aurki diezaiekegu arestian aipatu hiru puntuoi?

1- Izadiari buruzkoan, zalantzarik ez dut Antonio Arzakek bere jarrera harekin, gaur egun, ekologiari eta ingurugiroari lotutako gaiak aintzakotzat hartu eta, gaitzetsi ere, gaitzetsiko lituzkeela Euskal Herrian egindako bidegabekeria asko eta asko, hala nola Altzan gertatutakoak. Donostiak Altzarekin egin zuenak ez baitu izenik, eta hori ere esan beharra baitago, egia ere izenean. Hala ere ez nator Altzatik gerrako aizkora altxata, gure miseriak kontatzera -ordukoak eta oraingoak, orain ere bai baikenuke zer kontatu-, baina esan, bai, esan nahi nuke beste tratu bat merezi genuela altzatarrok, beste tratu bat merezi dugula.

2- Euskarari dagokionez, ez dakit zer esango lukeen une honetan Antonio Arzakek, baina haren hizkuntzarekiko maitemina ikusita, ez dut uste esango ditudanetatik oso urruti ibiliko lituztekeenik. Eta hemen, kezka bat: euskararen erabilera murrizta. Eta anekdota bat, gure auzia ongi baino hobeto isla dezakeena. Aste Santuan Almerian izan nintzen, eta hara non entzun behar izan nion bertako bati, lehen ere mila bider entzundako leloa, sekulako laudorioa egiten ariko balitzait bezala, borondate onenarekin, hori bai: *“Katalanekin ez bezala zuekin pozgarria da ibiltzea, Euskal Herrira joaten garenean ere berehala jartzen baitzarete espainieraz... Askoz edukatuagoak zarete”* Espainieradun nahi gaituztela alegia, ez euskaldun, eta euskara

zokora bazterturik nahiko luketela, elementu folkloriko gisa. Eta Almerían ezezik, etxean ere halatsu gertatzen zaigula bururatzten zait, oraindik ere sarritxoegitan, zoritxarrez. Eta pentsatzen dut geure egoera hau katalanizatu egin beharko genukeela pixkana-pixkana, tokian tokiko taktika erabiliz... edo edukazioak galduko gaitu bestela: gure asimilazioa besterik bilatzen ez duen sasiadukazio horrexek alegia. Eta euskaldunberriak jarri beharko genituzke eredu, bai ongi mintzatzen direnak eta bai ulertzera soilik iritsi direnak, Euskal Herriko hizkuntzen arteko auziari inork baino edukazio handiagoarekin erantzuten jakin izan dutelako.

Eta ereduak aipatu ditudanez, lagun izan nituen beste mota bateko adibide bi ekarri nahi nituzke hona, bi gizon, euskaldunzaharrak biak, geure eguneroko ihardueran ipar-izar gerta dakizkigukeenak, eta biak istripu latzetan aurten joan zaizkigunak: alde batetik, Joseba Jaka, teleberrietako edo egunkarien lehen orrietako protagonismoa bilatu gabe euskarari sekulako bultzada eman diona, ezerezetik sortutako enpresekin eta errealtate bihurtutako beste zenbait ametsekin, eta bestetik, Jabier Urkola, bere garaian ikaskide izan nuen injineru baikor bezain umoretsua, bere Unibertsitateko departamentuan euskara gogor bultzatzen eta euskara teknikaren mundura egokitzten saiatu zena, Donostian bertan iaz egindako azken KILOMETROetako ekitaldiko kantaren mamia eta muina gogoan: *“Basoan eder haritza. / Ez dezagun, ez, gal hitza! / Ate orotara moldatu / gure hizkuntzaren giltza”*. Bataren zein bestearen taldekideei doluminak ezezik, mezu baikorrik ere bidali nahi nieke: ez etsitzeko eta betikoari eusteko, bi lagun hilen jarrera eta portaera jarraibide... horixe baita gure bidea, lan eta lan egitea, norik bere alorrean, euskaldunok egunen batean lepotik gorbata beltza kendu eta ostera koloretakoa jarri ahal izan dezagun.

3- Hirugarren puntuari dagokionez, euskaldunen arteko gatazkari heltzea izango litzateke proposena, gure lagun hurkoekiko harremanak zertan dauden aztertzeko. Bada Antonio Arza-ken zortziko haundi bat, karlista txapel-gorri eta liberal txapel-zurien ingurukoa, jarraian emango dizuedana eta Antonio Arza-kek gure garaiotan zubigintzaren aldeko apustua egingo lukeela sinestarazten didana: *“Mendarte estu triste batean / arkitzen gera sarturik, / aritz bat dago gure aurrean, / galdua, ai!, zintzilik adarretatik, / erdian gorputz bat... illik”*. Bertso horrek gogora dakarkit, halaber, gaurko data: abuztuaren 31a, 1.813an Donostia desegin eta suntsitu zuteneko egun beldurgarri bezain tamalgarria, euskaldunok orduan ere banaturik, hauek frantse-ekin, haiek ingelesekin... kale batean hilketak eta hilketak, bestean biolazioak, guztian desolazioa, halakoak izan ohi baitira ondorioak, azkeneko hitza gerrari erabakitzen uzten diogunean. Baina zubiak direla eta, irudi ederra izan daiteke 1.788.urteko untzi baten imitazioa den gure fragata hau, untzigileen amets zaharberritua, eta bere izenean *-H.M.S.Rose-* arrosa bat gordetzen duena: esperantzaren arrosa akaso... zubi mugikorak baitira, azken finean, untxiak, ertz batetik bestea erasotzeko erabil daitezkeenak, tiroka eta kainoikadaka, baina baita ertz bat bestearekin harremanetan jartzeko ere, elkarrizketaren oihal guztiak haize alde, eta halako zerbai beharko baikenuke geure Herrian, irain arteko planteamendu zahar bazain agortuak berritzeko eta egoerari irtenbide zuzena emateko. Ezetz, ez dugula aurrera egingo kaleak erretzen, baina ezta kaleak bideo-kameraz josiz ere. Eta hitz egin beharra dagoela, hitz egin beharra dugula honetaz eta hartaz, zenbat eta lehenago hobeto.

Azkenean ez naiz mareatu, baina entzule bat baino gehiago, bai, halaxe ikusten dut dagoe-neko, zorabioak hartuta, eta ez da, ez, itsasoan gaudelako. Hemendik ehun urtera auskalo beste pregoilari bat izango ez ote den hemen bertan, horrela mintzatuko dena, beharbada: *“Joan Marik mareatu zituen, ez itsasoak...”*

Eskerrik asko guztioi, erakutsi duzuen pazientziagatik.

Ahalik eta Euskal Jairik zoriontsuenak opa dizkizuet.

JOAN MARI IRIGOIEN, 1.996ko abuztuaren 31n

Reseña

Este año lo han escuchado. Pero, sólo eso, escuchado. Y además, sólo unos pocos. Con ocasión de las Fiestas Euskaras, recuperadas tras un paréntesis de unos años, ha sido un altzatarra de pro quien ha dado comienzo a las mismas.

Un altzatarra pregonero en Donostia. Nos ha parecido oportuno pasar al papel las palabras que lanzó desde aquel espléndido barco en la bahía de la Concha, ya que, habiendo sido dirigidas directamente a l@s ciudadan@s y teniendo puntos de vista de gran actualidad, sería una pena que el viento se las llevara y se perdiesen.

Que lo dicho por Joan Mari sirva de entretenimiento y reflexión.